

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

#### **Diputatuen Kontseiluaren 719/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, Markinako Kontzejuko Kudeaketa Batzordea eratzea eta haren osaera onartzen dituen**

Ekainaren 28ko Diputatuen Kontseiluaren 409/2016 Erabakiz, xedatu zen hasiera ematea Markinako Kontzejua desegiteko prozedurari, bertako herritarren bi herenak hala eskatuta.

Martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuenak, 47.1.b) artikuluan, 49. artikuluan jasotakoari dagokionez, eskatzen duen arren kontzejua desegiteko auzokoen kopuru jakin baten idatzizko eskaera izatea, kasuan kasuko desegiteari buruzko ekimena, foru arau bereko 49. eta 12. artikuluen arabera, erakundeari berari eta, zehazki, auzokoen batzarrari dagokio.

Ondorioz, espedientea bakarrik izapidetu ahal da baldin eta auzokoen batzarrak ekimen hori egiteko erabakia hartzen badu balio osoz eraturako bilkuran, eta horretarako, foru arau bereko 14., 20. eta 21. artikuluetan arautzen denez, batzarra administrazio batzarreko buruak deitu eta bertako buru izan behar du, gutxienez bertaratuta hauek: presidentea, administrazio batzarreko kide bat, fede emaila eta auzoko bat.

Egun, Markinako Administrazio Batzarra hutsik dago, bakarrik eratzen duelako bertako presidentea, kideek dimititu dutelako eta ezinezko izan delako horiek ordeztzea beste hautagai hautatuekin. Ondorioz, ezinezkoa da baliozkoa izatea auzokoen batzarraren eratzea.

Behin eta berriro aipatutako foru arauaren 50. artikulua haxe xedatzen du: "Baldin eta Administrazio-Batzordeko hauteskundeak egin eta gero, aginte eta administrazio sailak bete gabe geratzen badira, Foru Aldundiak gestio-batzorde bat izendatu, eta honek hauteskundeak egiteko deia egin ahal izango du urtebete igaro ondoren". Hori dela eta, gestio batzordea izendatu behar da, Markinako Kontzejuko Administrazio Batzordearen egitekoak egin ditzan, eta auzokoen batzarra deitu ahal izateko gestio batzorde hori buru izendatzen denaren ekimenez edo auzokoen heren batek eskatuta, balio osoz eraturak, hala behar izanez gero, har dezan kontzejua desegiteko ekimenaz baliatzeko erabakia.

Gestio batzorde horren osaera finkatzeko, Markinako Kontzejuko auzoko guztiei jakinarazi zitzaizen hamabost eguneko epea ireki zela bertako kide izan nahi zutenek hautagaitza aurkez zezaten. Hiru auzoko aurkeztu ziren.

Eskaera horien arabera, gestio batzorde horretako kide kudeatzaile izendatzen dira partaide izan nahi zutenetako bi auzoko, errolatze egunaren arabera, eta batzordeko presidentea gaur egun administrazio batzordeko presidentea dena, azken hauteskundeetan hautagai hautatua izan delako.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### ERABAKIA

Lehenengoa. Eratzea gestio batzorde bat bete ditzan Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak Markinako Kontzejuko Administrazio Batzordeari egotzitako egitekoak.

Bigarrena. Izendatzea Markinako Kontzejuko Gestio Batzordeko buru Basilio Urrutia González de Mendivil, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak administrazio batzordeko buruei egozten dizkien egitekoak beteko baititu.

Hirugarrena. Izendatzea Markinako Kontzejuko Gestio Batzordeko kide kudeatzaile Domingo Ochoa de Eribe Ugarriza eta Jabier González Díaz, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak administrazio batzordeko kidei egozten dizkien egitekoak beteko baitituzte.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta berariaz jakinaraziko zaie Markinako Kontzejuari eta Zuiako Udalari.

Bosgarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, EAeko Auzitegi Nagusian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, Diputatuen Kontseiluan; hori guztia, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenak, 116. artikuluan xedatutakoarekin loturik– 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 8a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren saileko diputatua*

**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**